Okaranak

Gabriel Korta

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1986 Gabriel Korta
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1986
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Haizearen aurretik
poesiaren hegalak,
besoetan lumak
airosoak atarian,
argitaruntz zabalik
bihotzetikan kanpora.

Haizearen aurretik
poesiaren hegalak,
eskuetan bertsoak
poesiaren haziak,
imajinen ereintzak
zorrotik paperera.

Bihotz aingura zaharra
gorrotozko taupada sukarra,
fruitu ustel zakarra.

Begi gorri lankarra
iraganazko malko baldarra,
iragaztutako isil negarra.

Sagardoa esaten baduk,
aipatzen duk kupela;
Ken dezagun txapela!

Kupela esaten baduk,
aipatzen duk taberna;
Bete dezagun barrena!

Taberna esaten baduk,
aipatzen duk bertsoa;
Ken diezaiogun gorrotoa!

Bertsoa esaten baduk,
aipatzen duk kitarra;
Edan dezagun zizarra!

Kitarra esaten baduk,
aipatzen duk kantoa;
Gorde dezagun malkoa!

Kantoa esaten baduk,
aipatzen duk bihotza;
Ken diezaiogun zipotza!

Bertsotxo batzuen hazkureak
sentitu nitun buruan,
ezkur aletxo bati begira
arbola baten azpian.

Matrailla berdeari miatzen
jiratzen nuen artean,
bekoki-kokots xapel xurtenek
tentaturikan agian.

Xurtanetikan zetorkiola
ur xuka bizi bizian,
hazian zegola frutua
frutua berriz hazian.

Horrela sortzen dira haritzak
belar xehearen erdian,
lurrean sustraiak saretuz
adarrak izar begian.

Lijaz lainoak
neguak elurra,
hotz urdineko
otso zakurra.

Bide estuak
ogi papurra,
gorosti tinkoeneko
xori maltzurra.

Ostadar bustia
kolorezko zubia,
tintura;
Ura eguzkia.

Orratz berria
zazpiko haria,
joskura;
Irazkidura josia.

Begiz begiko
argi geldoen
hitzen distirak
gauean.

Zeruan daude
izar guztiak
kimuz kimuka
biltzarrean.

Isiltasunez
galdegai dira
malkoen gainean
bakardadean.

Mihiz lehortzen
ikasi duzu
minaren aleak
bazterrean.

Odol kolpeaz
zure begiak,
orratz dardaraz
zure begiak,
oi zu!
begiak preso
sare gorrietan
oi zu!

Begi horien
malko bakarra,
zure zorien
perla nakarra,
oi zu!
begiak preso
sare gorrietan
oi zu!

Malko dentsoa
mihiz lehortzen,
gaueko ardoa

penaz ixurtzen,
oi zu!
begiak preso
sare gorrietan
oi zu!

Zumardian zaude
aulki zahar horretan,
urte isil batzuen
garaizko printzetan.

Ahantzirik dauden
zuhaitzen hizketaz,
bihotz ezabatuen
zer esan nahitaz.

Zumardian zaude
usai ederretan,
haizeak dakartzan
musika ezagunetan.

Ezpain maitaleen
doinu leunetaz,
beso bilkor batzuen
azal beroetaz.

Zumardiko farolak
pastorratz giganteak/pizturik,
ahots intimoak
musika isilean/belarrira,
gertaera dardartsuak/sueltoki,
bihotza maitale
algara gozoan
irrian izarra
kitarra;
Haragi barneetan gorderik.

Espaloietako ttua.

Ilunpetako kanila.

Harrietako belarra.

Bazterretako lorea.

Arrosgabeko pretila.

Bideetako osina.

Ganbaretako panpina.

Burdinetako herdoila.

Alanbreetako artilea.

Kableetako izarra.

Txokoetako kolila.

Kaleetako putzua.

Kitarraren redobleaz, emakumeak zangoak dardarka.
Zaldun bat inguratu zitzaion kortesia handiz,
alkia zabaldu, bertan eseri, eta segidilla baten rritmoaz
hatz muinak korritu zituen zurean teklak joko bailitun,
hautsontziaren aristak ukitu arte. Bertan oraindik kolila bat bizia,
bokila karminez ezpainen pliegeak inprimaturik.
Emakumeak dauka gorputza fina, aurpegi batean samurtasunaren musika,
bestean ironikoa begia.

Punta ateratzeagatik baino,
kurkuiltxoak egiteagatik.

Esnea edateagatik baino,
isladak zurrupatzeagatik.

Ura xukatzeagatik baino,
burbuilak egiteagatik.

Mantaz berotzeagatik baino,
mendiak jasotzeagatik.

Harean jostatzeagatik baino,
eremuak asmatzeagatik.

Bertso klabea,
hitzak biluztea,
azpiak jotzea.
Jolas gaitezen!
seme galduak,
esku erreketatik tantotuak,
seme lainotuak,
birtute galkorrak,
gordekorrak.

Zorroan katona
galtzetan klariona
lainoen eskubideetan,
hiru bat bi
hiru bat bi.

Planeta planoa
kantuz saltoa
lainoen eskubideetan,
hiru bat bi
hiru bat bi.

Zerurantz begira
eskaileraz ilargira
lainoen eskubideetan,
hiru bat bi
hiru bat bi.

Espaloietan zangoak
zementoan estanpaketak
lainoen eskubideetan,
hiru bat bi
hiru bat bi.

Pozik zihoan txoria
haizetan txirulari,
alanbreaz ez jakin
hegoak libre baina,
trabeska mokoa.
Mugetaz ez jakin!

Hego handiak
kaiola txikietan,
odol ixurketak
herriko bideetan,
baltsamoa itsuski
azal moreetan,
Gernika inprimatua
gure haragian.

Neguak neguago
hostoak ignorantziaz ihes
belardiak haizeak makur
segak printzak ebasten
dorreko begiak/denboraz

gizonak plazetan/multzoka;
«Z» zalantzan.
Emakumeak elizan.
Arkupetako txokoetan,
bibotearen ezpatak
krudelkeria bideratzen.

Barran kea
eguzkia mataza bat
laino uhinak gainetik
eskuetatik harea,
zure begietako itsasoari so!
kaioak aidean, bekainak bailira
arratsaldeko edertasunean.

Hartzin nire eskuetatik
maitasunaren ihintzak,
beren festak,
goxa dezaten bularrek.
Eta dohai bezela;
Begietako pakea.

Nere bihotza;
Zure lurra.
Garia;
Zure lurrean.

Nere bihotza;
Maitasun arbola.
Magalean;
Gure amodioa.

Hau, gure gutuna.

Nere begiek,
hire begietako kaietan,
bilatzen diten deskansoa,
nere eskuen hegoek,
hire irria kariziatzen.

Bularrek topa dezaten
zeukaten hunkia,
barneek ere,
beren sabel untzia
zuk osorik/izarren bakea,
intxaurrek beren mamia,
laztanek xuka dezaten,
izarren esne euria.

Sugarra maitasun olibadira jasotzen duzu/kabi urdinera.

Zure begi infinitoetan maitasuna duintzen.

Bertsoa isiletik esnatu/izarrak ahaztu erazi.

Zure musuek beldurra katibutzen dute.

Lupetzatik maitasunaren figura jaso.

Zure laztanek etsaiak amildu.

Gorputz bilutzia haragiz jantzi.

Irripar freskoak ezpainetan/hitz galerazien iturriak.

Bihotzean garia
maleta arina
amarik gabeko kale bazterretan
ximiniak dorreekin lehiatuz,
istuka izarrez gaua
intsentsu industrialetan,
sare bat eginik.

Koma bat besterik ez zinen
esperma eta obuloak
bildu zirenean fruitua sortzeko.
Hori zinen; Feto bat.
Hori zinen; Koma bat.
Buru handi bat,
isats luze bat .....
Maiteaz maite gizondu zinen/
/haur biurtu
gorantzeko gogoz, sustraiak berantz
ez ahazteko lurraren indarra
gorputza enbortuz
adarrak saretuz
izarrekin jostatzeko;
Xorien xistuz
xorien xistuz
xorien xistuz.

Pentsamendu likido bat
hotz eta pasakorra
zaharra oso zaharra
ibai gorriren bat arindu nahietan,
unibertso bat berez, nahiz ttipia
animalia bat berez, nahiz ikaragarria,
miresgarria,
ximuen artean berezia,
hobekitzearren bideetan
bide garratzetan
eztia egin behar orri estekatuak
bai, egia!
lur bat promestu zigutela
suzko kantuetan/dantzetan
maitasunezko gauak ugari,
galdegin eten gabe/galdegin
mugak hautsi nahietan
kristal guztiak hautsi nahietan
alperrik, agian...!
hosto tinko baten gisa
zurrunba zaharrean

gauero xurgatzen dugun musikan
ilargiaren euri isilpean
txalupa iheskorretan
imajinatzen ditugun bezala
edertasun paregabean
planeta xoro baten dantzetan
berez gureak diren hoien defentsan
lehertuko balute agian.....
Ezinezkoa litzateke
Bonbatik-Bumbara
Mexikotik-Limara
Benarestik-Pekinera
Paristik-Bilbora
Melburnetik-Hawaira,
doazen bideetan ibiltzea.
Ilargiak ere nigar egingo luke.

Zer ote zan?
zer ote?
gurdika zeramatena;
Pagadia isil isilikan
gaztainadia ere,
gorostia ere bai
perla guztiekin
izar urdin bat ere,
hosto bati erantsita
kabia ere bai.
Hil zuten basoa,
hil itzala,
printza eta kantoa.

Hego lumak
migrazioak,
urtaroen aldaketak
antzarak neguaren iragarri.

Hosto berde nekeak
udaberriko berpizteetan.

Kukuaren kukantzak
zuhaitz mordoetan.

Kirkiraren hego nahiak
zelai zuloetan.

Zeru urdin pusketak
laino putzuetan.

Magalean
zuhaitzen nortasunaz
pentsamendu arinak:
Zuhaitzek;
Ez dute adibidezko galderarik egiten,
belaun sustraiak saretuz
ibiltzearrezko oker zeinuz
bihotz tatuajeak ezabatuz,
adar beso guztiak zeruratuz.

Argi koilareak
ahoxkak,
arnas gabeko kanilak
izartegiak/kabiak
herri geldoak gauez,
itzal munoak zabal
izotz arnasetan.
Zelai hildoetatik gauak narama,
ilargiaren argipean/oliondoak
zeru bobedan izar malkoak iheskor.

Kristal malko lurrunak
laukitutako kanto gaiak
amaigabeko desioak
leiho barneko isurketak
kaleko argi kimuak
barrurantz ikusmiran.

Errauts bideak
argiak haizetan,
arno tantoak
zapi zurietan,
ilusio tontoak
intxaur buruetan,
euliaren gatazkak
leiho gortinetan.

Karrasi bizian
ilargi boluptuosa
kalea zure tinteaz,
orratzik gabeko gauean
hitz zoroak
zure arnaspean.
Argi guztiak jaietan
ardorik ezin ito,
igelak ilargiaren gogoz.

Geltokian, burdinezko xistu luzeak
aulkiak bakarka,
kristal pikortatuan;
Takilleroaren bekoki biboteen soslai/itxuragabetuak
metalezko botoiak txamarra urdinean,
txartelaren alde bietan hots rritmikoaren/arrastoak
zokoan karrilero baten alkoholezko loa,
bonbila isilaren inguruan
hautsezko tximeletak orbitan,
ametsen azken uhinak.

Izarrak kontatzen dituzu
haiei so,
morrointzan,
bare kantatzen duzu
bakardadezko hari hotzean
sinboloak puzleak konposatuz
galaxia isilen misterioa
zutaz jabetzen denean
zuk kantatzen dakizun bezala
suzko malko iheskorrek
izkribatzen ez dakitelako,
distir eta kirkir armonikoan
hegokadak/keinuak
sexo guzietako begiak
irakurtzen dituzu,
eromenaren ur lokaztuak geldierazi
amets batek biltzen gaituenean
argi zingurketen azpian
izartegi elektrikoetan.

Kalean heuri eta hari
gertaera sinple bat!
kalean heuri
kalean hari
gertaera sinple bat!
kalean euria du ari.

Saihets hezurrak bilutzik,
brankaren punta lohian
uretarako beti!
zure azken destinoan.

Baratzetan kalabazak;
Ihintzaz bustiak,
lurrak haizatu balitu!
kalabazetan bareak;
Babaz neurtitzak.